



# EUSKARAZ BIZI NAHI DUGULAKO ESPERIENTZIA

Martxoaren 4a arte, euskaraz bizitzen saiatuko gara astez asteko txandatan antolatuta.

Euskaldunoi zalantza berak sortzen zaizkigu hainbat egoeren aurrean: denda batean euskaraz ez dakitenean, solaskideak euskaraz ulertu bai baina hitz egiteko gauza ez denean... Eguneroko egoera hauetan euskaraz aritzea eta ikasitakoa konpartitzea da ekimen honen helburua: modu kolektiboan esperientziak trukitzea eta pausoak ematea.

## LEKUKOAK LEKUKOTZA BIHURTU NAHI DITUGU. NOLA?

Lekukoa lekukotza bihurtzea da esperientzia honen helburuetako bat. Horretarako ondorengo bitartekoak erabiliko ditugu:

- **LEKUKOA IRUDIKATUKO DUEN LIBURUA.** Bertan ondokoak idatzi behar dira: eragilearen izena, data eta parte hartuko duten lagunen kopurua.

- **BIDEOA:** parte hartzaileek bideo bat grabatuko dute beren bizipenak kontatuz. Bideo hori ondoko helbidera bidali beharko da: [egiaeuskaraz@gmail.com](mailto:egiaeuskaraz@gmail.com). Ondoren, bideoa Egia Euskaraz-en blogean zintzilikatuko da.

- **KOADERNOTXOAK:** eguneroko bizipenak jasotzeko. EIZMENDI burdindegian jaso ahal izango dira (goizez). Gehiagotan erabili behar ez denean koadernotxoa EIZMENDIra itzultzea komeni da, besteren batek erabil dezan. Txapak ere EIZMENDI n jaso ahalko dira, esperientzian parte hartzen ari denaren erakusle gisa.

## TXANDEN EGUTEGIA

- **URTARRILAK 8:** Egia Bizirik eta Trebeska. Txanden hasiera.
- **URTARRILAK 15:** Egia Bizirik eta Trebeskak lekukoa utzi /Porrontxoak eta AntxetaTtan ttakunek hartu.
- **URTARRILAK 22:** Porrontxoak eta Antxeta Ttan ttakunek lekukoa utzi / Eskubaloi taldeak, Haurguneak eta Xudur taldeak hartu.
- **URTARRILAK 29:** Eskubaloi taldeak, Haurguneak eta Xudur taldeak lekukoa utzi/ Haur txokoak, Gaztelekuak eta Txondorrak hartu.
- **OTSAILAK 5:** Haur txokoak, Gaztelekuak eta Txondorrak lekukoa utzi/ Lauaizetak, Sibilia, Urzaleak-ek eta Aitzarte mendi taldeak hartu.
- **OTSAILAK 12:** Lauaizeta, Sibilia, Urzaleak eta Aitzartek lekukoa utzi/ Tabakalerak, Musika eskolak eta Sortuk hartu.
- **OTSAILAK 19:** Tabakalerak, Musika eskolak eta Sortuk lekukoa utzi/ Aitor ikastola, Latxaga eta Maria Reinak hartu.
- **OTSAILAK 26:** Aitor ikastola, Latxaga eta Maria Reinak lekukoa utzi / Norbanakoek hartu.
- **MARTXOAK 4:** Norbanakoen astea.
- **MARTXOAK 12:** EGIA EUSKARAZ EGUNA.

EGIAKO DENDETAN EUSKARAZ gida kaleratu dugu esperientzia hau gauzatzen laguntzearren eta euskaraz zerbitzua ematen duten merkatarien ahalegina eskertzearren.

Erabil ezazu!

## LAGUNGARRI IZANGO ZAIZKIZUN AHOLKUAK

**IRRIBARREA LAGUN UNEORO.** Arma boteretsua da irribarrea. Zuk segi zurearekin eta erakutsi zure irribarrerik hoberena!

**EZAGUTZEN EZ DUGUN JENDEAREKIN ARITZEKO LEHEN HITZA EUSKARAZ:** lehen hitza euskaraz egitea da modurik onena ezezagun batek euskaraz dakien jakiteko. Egin lehen hitza beldurrik gabe, eta sorpresa hartuko duzu zenbat jendek dakien euskaraz!

**ETA HURRENGO HITZAK ERE BAI:** baliteke aurreko lagunak euskaraz ulertzea baina gurekin hitz egiteko ez moldatzea, eta gure “kaixo” horri gaztelaniaz erantzutea. Solaskideak ulertzen bagaitu, euskaraz jarrai dezakegu lasai.

Elkarrizketa elebiduna izango dugu agian, gu euskaraz eta bera erdaraz, baina guk gureari eutsiko diogu. Ohitura kontua da. Pazientzia izan.

**ERABAKIA ZUREA DA BETI:** solaskideak euskaraz ez dakiela esaten badizu, edo zuzenean esaten badizu berari gaztelaniaz egiteko, erabakia zure esku dago.

Euskaraz jarraitzeagatik aurpegi txarrez edo hitzez erasotzen bazaituzte, ondoko aholkuak lagungarri izango zaizkizu:

- **Ez itzuli eraso:** horrek tentsioa besterik ez du eragingo eta kostu emozionala ekarriko dizu.

- **Ez justifikatu zure portaera:** zure portaera justifikatzen ari zarenean, zure portaera kuestiona dezaten legitimatzen ari zara.

- **Saihestu itzazu ideologian, historian eta eskubideetan oinarritutako eztabaidak.** Gogoan izan Oscar Wildek esandako hura: “arrazoia da mundu honetan ugarien dagoen substantzia: guztiek dute guztia, denbora guztian”.

## LAGUN ETA EZAGUNEKIN ARITZEKO

Posible da ohiturak aldatzea: elkarrekin gaztelaniaz aritzeko ohitura handia dugu euskaldunok. Baina ohiturak alda daitezke, hori argi dago. Nahi izatea eta pausoak ematea da kontua. Gure lagun baten batekin hizkuntz ohiturak aldatzen hasi nahi badugu, kontuaz hitz egitea da lehen pausoa. Behin hori eginda, beti da lagungarria aldatetaren alderdi positiboak azpimarratzea eta kontua ultimatun bat bezala ez planteatzea. Ezina ekinez egina... eta irribarre onenarekin beti. Ezezagunei irribarre egingo badiegu, lagunei nola ez?

**“Irten hizkuntzaren armairutik. Euskaraz bizitzeko portaera-gida”** liburutik ateratako aholkuak